


BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan gure proposamena aurkeztuko dizuegu, eta insomnioari aurre egiteko sortu dugun irtenbidea ezagutzera emango dugu. Lo egiteko arazoak geroz eta pertsona gehiagori eragiten die gaur egungo gizartean. Horregatik, arazo honi aurre egiteko bereziki diseinatutako manta termiko eta pisuduna sortu dugu. Manta honek bi helburu nagusi ditu: berotasun atsegina eta segurtasun-sentsazioa eskaintzea, erabiltzaileari lasaitasuna eta ongizatea emateko.



Proiektua pentsatzen hasi ginenean, insomnioa pairatzen duten pertsonen egoeran jarri ginen. Nekea, antsietatea eta lo faltak eragiten duen frustrazioa kontuan hartuta, erabaki genuen pisu-terapia eta berotasuna konbinatuta soluzio eraginkorra eskainiko geniola. Ideia honek babeseta eta erosotasuna eskaintzen du, erabiltzaileari lo sakon eta eroso batean murgildu dadin lagunduz. Manta hau, beraz, ez da edonolako manta: insomnioaren aurkako laguntza praktikoa eta eraginkorra da.

Mantaren materialei eta diseinuari dagokienez, kanpoko geruza % 100eko kotoiz egin dago, eta transpiragarria eta hipoalergenikoa da. Barrualdean, poliesterreko edo kotoizko zuntzezko bigungarri batek moteltzea ematen du eta deserosotasunak saihesten ditu; material isolatzaile termikoek, berriz, beroa uniformeki kontserbatzen eta banatzen dute.

Pisua beirazko perla trinko, isil eta uniforme bidez banatzen da. Sistema termikoa kromo-nikelezko edo silikonaz estalitako kobrezko hari berogailuak ditu, tenperatura (30-55 ° C) doitzen duen kontrol batera konektatuak, eta pertsonalizazio eta segurtasunerako tenporizadoreak. Gainberotzetik eta itzalketa automatikotik babesteko sistemak ere baditu.

Gainera, garbiketa errazteko zorro erauzgarri bat du, material beroetan eskuragarri dagoena, hala nola, negurako belusa edo freskoak, hala nola kotoia edo udarako banbua. Diseinu horrek erosotasuna, segurtasuna eta ongizatea bermatzen ditu, eta insomnioari aurre egiteko egokia da.

Gure manta termikoa urteko edozein urtarotan erabili daiteke; izan ere, mando batek bere tenperatura erregulatzea ahalbidetuko gaitu. Hala ere, badakigu udaran gure salmentak ez direla hain esanguratsuak izango, baina mantak pisua solik izan dezan ere jar daiteke. Horrez gain, 1,5 metroko zabalera eta 2 metroko luzera izango du, pertsona bakar batentzat aproposa.

Prezioari dagokionez, 120€ balioko ditu. Aproposa dela deritzogu, ez baita manta ohiko bat.

Gure produktuak eksklusiboki online bidez eskuragarri izango dira, eta ez ditugu ohiko dendetan saltzea aurreikusten. Modu honek erabiltzaileei erosotasun handiagoa eskaintzen die, produktua nahi duten lekutik eskatu ahal izango baitute. Urretxuan kokatutako gure instalazioetatik banatuko ditugu eskaerak, baina salmenta guztia gure plataforma digitalaren bidez egingo da.

Online salmenta eredu hau aukeratzean, erosleek denbora eta baliabideak aurrezten dituzte, eta gure zerbitzua errazago eskuratzeko aukera ematen dugu. Gainera, Urretxuko kokapen estrategikoa dela eta, produktuen banaketa arina eta eraginkorra bermatu ahal izango dugu, inguruko herrietara ere modu azkarrean heltzeko. Gure helburua kalitatezko produktua eskaintzea da, bezeroen beharretara guztiz egokituta.